

Liburutegiak jomugan

Egin dezagun amets. Behin bazen irakurle herri bat. Horretan, bakoitza joan zitekeen etxetik hurbil zegoen leku batetara, (...) leku bero bat non norberak bere burua eta besteena deskubritu zezakeen, non ikasi, irudikatu, trukatu, bidaiatu zezakeen. (...) Herri hori, gurea da, Frantzia da. Guri dagokigutik existitu dadin”.

Prediku hitz horiekin bururatzen da Erik Orsenna Frantses Akademia kidea-ren eta Noël Corbin Frantziako Kultur Saileko Ikuskari Orokorren txosten bat, 2018ko otsailan agertua, *Liburutegien herrian bidaiaz* izendatua. Emmanuel Macron lehendakariak galdeginik, bi adituek Frantziako liburutegien itzulua egin dute, eta horien egoera-akta agerrarazi.


Txosten horretan, egileek azpimarratzen dute jende franko letragabea dela Frantzian. Ongi dakigu ere ezaxola gero eta handiagoa dagoela gizartean literaturarekiko, batez ere garaikidea ez den literaturari begira. Hots, liburutegietan gehien aurkitzen den fondoari begira. Egoera hori problematikoa da bai kulturalki- bere iragan kulturala ezagutzen ez duen herri batek ez dukeelako etorkizun oparorik- bai politikoki ahultze demokratikoaren seinalea datekeelako.

Hain zuzen, demokraziaren indartzea daukate helburu Orsennak eta Corbinnek beren lanean: horien ustez, liburutegiak gehiago sostengatu beharko lirateke, jende gehiago erakar dezaten, Frantzia herri ikasi eta argiagoa bihurtu dadin. Baina xede horretan egiten dituzten proposamenak dudazkoak dira: liburutegiek beharko lukete ongizate guñeak bilakatu, jakitateaz gain solastatzeko guñe informal erosoak eskainiz, jan-edateko tokiekin, haurrendako joko dibertigarriekin, akituak diren pertsonendako lo egiteko guñeekin, zerbitzu publikoei dedikatu tokiekin (langabe-



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA



Antton Olariaga

tuen harrera, posta); gehi, bistan dena, ongi ekipatua litekeen informatika gela bat. Eta liburutegiaz, zer? Formazio bereziak segitu beharko lituzkete jende harreraren, beren funtzio berriei egokitzeko; lagundu beharko lukete beren lantokia automatizatu bihurtarazten, asteen zazpi egun eta egunean hogeitalau orduz zabaldua izan dadin; publikoaren artean bolondresen bila joan beharko lukete laguntza eskuratzera, lan berri zamari aurre egiteko.

Hots, demokrazia, jakintza hedatzea, norbanakoaren eta jendartearen adimen garatzearren izenean, Orsenna eta Corbinnek txostenak kontsumismoa eta liburutegien errentagarritasuna du bultzatzen, liburutegien lan funtza gutietsiz, animatzaile soil edo bezero arpoitzale bihurtarazi nahi du, liburutegiak deskralizatuz merkatarien esku uzteko.

Bonne sieste à la bibliothèque artikuluan (*Le Monde Diplomatique*, 2018ko ekaina, 771. zb., 27. orria.), Éric Dussert eta Cristina Ion idazleek sakondu dute liburutegien bilakaera hori, eta erakusten dute Ameriketako Estatu Batuetako ereduaren ildotik dabiltzala Frantzia: hezkuntza herrikoia eskaintzeko xedearen gibelean, enpresa eta fundazio pribatu handien konkurrentzia izugarria eragiten duen eredu.

Bizi naizen eskualdean, jadanik frogatua dut bolondresik gabe liburutegi publikoak ez duela funtzionatzen ahal, baina ez da oraino merkatu espazioa bihurtua: hurbiltzen den jendea oraino “irakurle” deitzen dute, eta ez “bezero”. Ondoko hilabeteetan gauzatu daitekeen bilakaerari erresistentzia egiteko garaia daukagu oraindik, beraz, xoko honetan behintzat, eta modu hoberena izanen dugu liburutegitik liburuak mailegatzeari, eta horiek sorrarazi gozamen partekatzea. Mentura hori zureganatuko duzulakoan zuk ere bai, ARGIAko irakurle, uda ona pasa! ■